

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak. Enpresa baten funtsezko baliabideak ondorengo kategorietan sailkatu daitezke: baliabide fisikoak, intelektuak, giza baliabideak eta finantza baliabideak.

Cleanwinrob aurrera eramateko, baliabide fisiko batzuk beharko ditugu, eta honakoak izango dira. Lehenik eta behin, gure produktua eta enpresa aurrera joan dezan langileak behar ditugu. Bigarrenik, gure produktua fabrikatzeko leku bat beharko dugu, beraz fabrika bat lortzerakoan, produktuaren maketak eta robotaren lehenengo ideiak egingo ditugu. Hirugarrenik, materiala edo robota fabrikatzeko pieza bezeriak beharko ditugu. Laugarrenik, gure robota egiteko makinak beharko ditugu. Azkenik, beste enprekin kontaktuan egoteko edo bezeroak gurekin kontaktuan egon dezaten telefonoak eta ordenagailuak behar ditugu.

Baliabide intelektualei dagokionez, robota sortzeko, langileak eta makinak behar ditugu, produktuaren piezak ongi kolokatuta egoteko eta robota martxan edo fabrikatzen asteko.

Giza baliabideei dagokionez, guk daukagun sormena erabili edo kontuan izango dugu gure produktua ezaguna egin dezan (adibidez, publizitatearen bitartez).

Azkenik, finantza baliabideei dagokionez, materiala erosteko, soldata ordaintzeko, bestelako erosketak egiteko, hala negozioak zabaltzeko dirua behar dugu. Bankuari mailegu bat eskatuko diogu eta bakoitzak daukan lanetatik kobratzen dugunaren ehuneko zerbait jarriko dugu baita ere.